

ehildu

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO MAHAIARI / A LA MESA DE JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA

Ekimen mota / Tipo de Iniciativa: **Ahozko erantzun-eskea (Osokorako) / Pregunta oral en pleno**
Data / Fecha: 2023-11-16
Aurkezlea / Proponente: Ilardia Olangua, Beatriz(EHB)

GAIA / ASUNTO

Indarkeria matxista pairatzen duten emakumeentzako harrera foru baliabideak



BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO MAHAIARI

Bea Ilardia Olangua, EH Bildu taldeko bozeramaile ordeak, Bizkaiko Batzar Nagusien araudiak ahalbidetzen duen moduan, Kontrol Plenoan **AHOZ ERANTZUTEKO GALDERA** hau aurkezten dio Teresa Laespada Martínez, Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna sustatzeko saileko Foru Diputatuari, Indarkeria matxista pairatzen duten emakumeentzako harrera foru baliabideen inguruan.

ARRAZOIKETA

Berehalako harrerarako foru-baliabideetan eta egonaldi ertaineko zentroetan indarkeria matxista pairatzen duten emakumeentzat (eta haien ardurapean dauden mendeko pertsonentzat) dauden plazak kontuan hartuta alde batetik, harrerako foru-baliabide horietan azken urteetan artatutako erabiltzaileen kopurua aintzat hartuta bestetik eta baliabide hauetan emakumeen eta haien seme-alaben batez besteko egonaldia behatuz, ondorioztatu dezakegu horietako asko ezin izan direla artatu dauden foru-baliabideetan.

Guzti hau kontutan izanda, honako kontrol plenoan **AHOZ ERANTZUTEKO GALDERA** egiten diogu Teresa Laespada Martinez Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna sustatzeko saileko Foru Diputatuari:

- Non egin edo eman diete arreta foru-harrerako baliabide horietan hartu ez diren edo mantendu ezin izan diren emakumeei?

Bilbon, 2023ko azaroaren 16an

Bea Ilardia Olangua

EH Bildu taldeko bozeramaile ordeak

